

EUSKARALDIA 2022. LHK-N ERE BAI

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua.

Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza-ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. 2018koaren ondoren eta 2020koaren ondoren, hirugarren ekitaldia izango da; azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da ariketa, eta aurten, norbanako bezala (*ahobizi* edo *belarriprest* izanez) parte hartzeaz gain, *arigune* izango gara, berriro ere.

Izan ere, Lan Harremanen Kontseiluak bigarrenez bat egin du ekimen honekin. Eta, zalantzarik gabe, poztekoa da. Euskaraldiak iraungo duen bi asteetan erakundeko ia langile guztiek (guztira, 16 lagun) konpromisoa hartu dute aktiboki parte hartzeko, eta erakunde barruko hizkuntza-ohiturak aldatzeko.

Rolen banaketari dagokionez, 4 *ahobizi* eta 12 *belarriprest* izango dira.

- *Ahobizi* izango denak euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo du une oro, eta batzuetan zaila izango den arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten saiatuko da. Dagokion txapa izango du aldean.



- *Belarriprest* izango denak bere gaitasun eta aukeren arabera erabakiko du euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez du euskaraz egingo ulertzen dutenekin, baina euskaraz dakitenek berari euskaraz hitz egitea nahi du. Dagokion txapa izango du aldean.



Euskaraldiak dirauen egunetan, Lan Harremanen Kontseiluan jarduera bereziak egingo dira ekimenari lotuta.

Eta, behin Euskaraldia 2022 bukatuta, LHK-k dagokion balorazioa egingo du.